

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

**Ebazpena: R5/2017**

**Espedientea: 30/2012**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 6a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontra (GFA) 1. ERAKUNDEAren (IFZ: -----) helbide fiskala zehazteko planteatutako eskumen-gatazkari buruz (gaur egun 2. ERAKUNDEA da horren ondorengoa), eta 30/2012 espediente-zenbakiarekin Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da, Isaac Merino Jara jauna txostengile dela.

## **I.- AURREKARIAK**

1.- Gatazka hori ZAEAk planteatu zuen, idazkari nagusi teknikoak 2012ko irailaren 26an egin zuen idazki baten bidez. Idazkia 2012ko irailaren 27an sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

2.- Idazki horretan eta horrekin batera aurkeztutako agirietan honako aurrekari hauek ageri dira, laburbilduta:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

2011ko irailaren 11n, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Erakunde arteko Eskualdeko Sailaren buruak 1. ERAKUNDEAREN (aurrerantzean, 1. ERAKUNDEA) helbide fiskala aldatzeko proposamen bat helarazi zion GFARI, Kontzertu Ekonomikoaren 43. Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, helbide hori Valladolideko 1. HELBIDEtik Arrasateko 2. HELBIDEra aldatuz, 2008ko azaroaren 6tik aurrerako ondoreekin.

3.- Helbidea aldatzeko proposamenarekin batera aurkeztu ziren Gaztela eta Leongo ZAEAREN Ordezkaritzaren Ikuskapeneko Eskualdeko Sailaren eta Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzaren Ikuskapeneko Eskualdeko Sailaren txosten bana, 2011ko ekainaren 24koa eta urriaren 28koa, hurrenez hurren. Dokumentu horietan ZAEAK 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala egiaztatzeko egindako zenbait jarduketaren emaitzak jasotzen ziren.

- Gaztela eta Leongo ZAEAREN Ordezkaritzaren Ikuskapeneko Eskualdeko Sailaren txostenean honako hau adierazten da, besteak beste:

2008ko azaroaren 6an Donostia emandako eskritura publikoaren bidez, -----  
----- IFZ duen KREDITU-ERAKUNDEAK 1. ERAKUNDEA eratu zuen, haren kapital soziala osatzen duten partaidetza guztiak harpidetuz eta ordainduz. Eskritura horretan adierazten denez, KREDITU-ERAKUNDEA, helbidea Arrasateko (Gipuzkoa) 2. HELBIDEAN duena, izendatu zuten administratzaile bakar, eta kargu horretako lanak gauzatzeko pertsona fisiko bezala aukeratu zuten 1. ADMINISTRARIA (IFZ -----), egoitza Gipuzkoan duena.

Gerora, Bilbon 2010eko urriaren 1ean emandako eskritura publikoaren bidez, 1. ADMINISTRARIA kargutik kendu zuten, eta bere ordez 2. ADMINISTRARIA izendatu zuten (IFZ -----), helbidea 1. HELBIDEAN zuena. Hori da, hain zuzen, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskal bezala izendatutako lekua. 2.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

ADMINISTRARIAK KREDITU-ERAKUNDEAren Valladolideko enplegatu bezala jasotzen ditu ordainsariak.

2010eko otsailaren 8an, Bilbon emandako eskritura publikoaren bidez, 1. ERAKUNDEAK ahalordea eman zien 1. AHALDUNARI (IFZ -----), 2. AHALDUNARI (IFZ -----), 3. AHALDUNARI (IFZ -----) 4. AHALDUNARI (IFZ -----) eta 5. AHALDUNARI (IFZ -----). Lehen hiruen helbidea Bilbon dago, beste bietako batena Iruñean eta azkenarena Arrasaten. Ahaldun horiei guztiei ahalorde ugari ematen zitzaizkien, besteak beste: sinaduraren ohiko kudeaketaz arduratzea, kontabilitatea eramatea, merkataritzako dokumentuak sinatzea, higiezinak salerostea, bankuko kontuak ireki eta erabiltzea, eta abar.

1. ERAKUNDEAren helburu soziala, besteak beste, higiezinaren operazioak eta hirigintzakoak sustatzea eta kudeatzea da. Entitateak alta emana du ekonomia-jardueren gaineko zergaren 833.3 epigrafean (ondasun higiezinaren sustapena) 2008ko abendutik Valladoliden, eta ez dago jasota jardueraren helbiderik ez eta horretarako erabiltzen den lokalik.

1. ERAKUNDEA bankuko 28 konturen titularra da. KREDITU-ERAKUNDEan ditu kontu horiek, 8 Valladoliden eta 20 Zaragozan. Baimendutako pertsonak erakundearen ahaldunak dira.

Eratu zen egun berean, 2008ko azaroaren 6an, 1. ERAKUNDEak zerbitzu-prestazioa emateko kontratu bat sinatu zuen KREDITU-ERAKUNDEarekin. Bertan adierazten denez, bigarren erakundeak lehenengoaren esku ipiniko ditu bere helburu soziala osatzen duten jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak. Kontratuko zerbitzu horiek doan emango dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

2010eko maiatzaren 6an, 1. ERAKUNDEak kontratu bat sinatu zuen 3. ERAKUNDEarekin (IFZ -----), eraikin bateko etxebizitzak kudeatu eta merkaturatzeko. Eraikina lehen erakundearen jabetzakoa zen, eta Valladoliden zegoen. 1. ERAKUNDEaren ordezkaria laneko helbidea Bilbon duen 2. AHALDUNA izan zen.

1. ERAKUNDEaren Valladolideko helbidean jasotzen den dokumentazioa helbidea Arrasaten duen 5. AHALDUNari bidali zitzaion. Horrek, bestalde, GESTORIARI bidali zion (IFZ -----). Sozietate hori arduratzen da, hain zuzen, 1. ERAKUNDEaren operazioak kontabilizatzeaz, BEZeko liburuez, zerga-adierazpenez eta abarrez.

Bere jarduera garatzeko, 1. ERAKUNDEAK hainbat lurzati eta higiezin erosi ditu, eta horien promozioaz eta salmentaz arduratzen da. Inbertsioaren arloko erabakiak ahaldunek hartzen dituzte.

1. ERAKUNDEAK ZAEAREN aurrean aurkeztu ditu BEZAREN adierazpenak/likidazioak, eta itzulketa hauek eskatu ditu: 5.832.875,10 € 2009ko laugarren hiruhilekoan eta 2.031.857,11 € 2010eko laugarren hiruhilekoan.

ZAEAKO langileek zergapekoaren Valladolideko helbidean eginiko ikuskapen-bisitan, ikusi zen atarian 1. ERAKUNDEAREN eta KREDITU-ERAKUNDEAREN agertzen zirela postontzian. Bisita egin zenean, KREDITU-ERAKUNDEKO enplegatu bat zegoen helbide horretan eta honako hau adierazi zuen: bertan hainbat bulego zeudela, tartean KREDITU-ERAKUNDEAREN eskualdeko buru eta giza baliabideen arduradun den 2. ADMINISTRARIARENA eta, halaber, 1. ERAKUNDEAREN dokumentazioa 1. ENPLEGATUAK jaso ohi duela normalean eta gero 5. AHALDUNARI edo GESTORIARI bidaltzen diela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

-Bestalde, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzaren Ikuskapeneko Eskualdeko Sailaren txostenean honako hau adierazten da, besteak beste:

2011ko urriaren 18an, ZAEAREN aktuario bat joan zen KREDITU-ERAKUNDEAREN Arrasateko helbide fiskalera. 1. ERAKUNDEAREN ahaldu eta KREDITU-ERAKUNDEAREN enplegatu den 5. AHALDUNAK jaso zuen, eta 1. ERAKUNDEAREN jardueri buruzko informazioa eman zion. Egun berean, gainera, emailez bidali zituen ZAEARA KREDITU-ERAKUNDEAK 1. ERAKUNDEARI emandako partaidetzako maileguren hamaika kontraturen kopiak. Horiek hainbat higiezin erosteta finantzatzeko ziren, eta 2009 eta 2010eko ekitaldietan sinatu ziren.

4.- 2012 ekainaren 4an ZAEAN jaso zen helbide fiskala aldatzeko proposamenari GFAR emandako ezezko erantzuna, 2012ko maiatzaren 18ko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariorde Nagusiaren txostenarekin batera.

5.- 2012ko uztailaren 13an, «Helbide-aldaketan lantaldearen ondorioen eta Kontzertu Ekonomikoaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketarako adiskidetze-prozeduraren» 5.3 puntuaren arabera, ZAEAK GFARI jakinarazi zion berretsi egiten zuela 2011ko azaroaren 10eko proposamena, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Valladolidetik Gipuzkoara aldatzekoa, hain zuzen.

6.- 2012ko abuztuaren 27an GFAREN komunikazio bat iritsi zen ZAEARA, «helbide fiskalaren aldaketaren egokitasunik eza» berretsiz.

7.- Gatazka hau planteatzerakoan ZAEAK adierazitako alegazioak honela laburbil daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Pertsona juridikoen helbide fiskalari buruzko Kontzertu Ekonomikoaren 43. Lau artikulua inguruko ohar orokor batzuk egiten ditu eta adierazten du, funtsean, Auzitegi Gorenaren hainbat epaik (horiek behar bezala aipatzen dira) berretsi dutela urriaren 15eko 261/1982 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren 22. artikuluko aginduaren interpretazio-balioa. Gogoan izan Kontzertu Ekonomikoaren 43. Lau b) artikuluan ezartzen dela, Kontzertu Ekonomikoaren ondoreetarako, Euskadin helbide fiskala duten pertsonatzat joko direla «Euskadin euren egoitza soziala duten eta Sozietate Zerga ordaintzen duten pertsona juridikoak eta gainontzeko erakundeak, betiere, horien negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizatuta dagoenean. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada (...).»

Alegazioekin jarraitzen du, aipatutako irizpideak 1. ERAKUNDEAren egoerari aplikatuz, eta ondorioztatzen du haren helbide fiskala Gipuzkoan izan dela, eta ez Valladoliden, 2008ko azaroaren 6tik, honako arrazoi hauengatik:

Ohiko administrazio-kudeaketari dagokionez, adierazten du 1. ERAKUNDEAK ez duela baliabide material ez giza baliabide propiorik Valladoliden bere jarduerak egiteko, eta adierazitako helbide fiskala KREDITU-ERAKUNDEAren bulegoetan dagoela. Ondoren, gaineratzen du erakundearen ohiko dokumentazioa GESTORIAra bidaltzen dela. Sozietate horren helbidea Arrasaten dago, eta hura arduratzen da 1. ERAKUNDEAren kontabilitateko dokumentazioa, administratiboa eta fiskala kudeatu, tramitatu eta gordetzeaz.

Negozioen zuzendaritzari dagokionez, nabarmentzen du 1. ERAKUNDEAren bazkide eta administratzaile bakarra helbidea Arrasaten duen KREDITU-ERAKUNDEA dela, eta horrek ahalorde handiak eman dizkiela helbide fiskala Euskadin eta Nafarroan duten zenbait pertsonari. Jarraian, esaten du ahaldunek hartzen dituztela 1. ERAKUNDEAren jarduera ekonomikoa osatzen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

duten erabaki estrategikoak eta, azkenik, ez dela egiaztatu sozietateak Valladoliden «negozioen zuzendaritza» kontzeptuan sailka litezkeen jarduerak egiten dituenik.

Amaitzeko, eskari hau egiten du ZAEAk gatazka planteatzeko idazkian: adierazteko 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Arrasaten (Gipuzkoa) egon dela, eta ez Valladoliden, 2008ko azaroaren 6tik aurrera.

8.- 2015eko urriaren 28an 1. ERAKUNDEAK idazki bat aurkeztu zuen, hainbat dokumenturekin batera, Arbitraje Batzordean, eta eskatu zuen gatazka premiaz izapidetzeko, ordura arte ZAEAk ez baitzion eskatutako BEZaren zenbatekoa itzuli.

9.- 2015eko abenduaren 3an gatazkaren planteamendua jakinarazi zitzaien GFARI eta 1. ERAKUNDEARI, eta adierazi zitzaien zer epe zuten alegazioak aurkezteko eta frogak eta dokumentuak entregatzeko.

2015eko abenduaren 22an GFAK alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskatu zion Arbitraje Batzordeari.

10.- 2016ko urtarrilaren 19an GFAK alegazioak aurkeztu zituen. Bi motatakoak dira horiek: batzuk prozedurari lotutakoak dira, hau da, prozedura epez kanpo aurkezteari buruzkoak, eta besteek gaiaren funtsa aztertzen dute, eta 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Valladoliden dagoela argudiatzen dute.

Prozedura epez kanpo aurkeztu delako alegazioen aurretik, GFAK aurrekari hauek aipatzen ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

2011ko azaroaren 11n, ZAEAk 1 ERAKUNDEAren helbide fiskala Valladolidetik Gipuzkoara aldatzeko proposamena bidali zion GFari, sozietatea eratu zen egunera arteko, hau da, 2008ko azaroaren 6ra arteko atzeraeraginarekin.

2012ko ekainaren 4an, GFAk, email bidez, ZAEari jakinarazi zion ez zegoela ados proposamen horrekin, 2012ko maiatzaren 18ko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren txostena oinarri hartuta. Txosten horretan argudiatzen zen zergadunaren helbide fiskala Valladoliden dagoela.

2012ko uztailaren 13an, email bidez, ZAEAk GFari jakinarazi zion hasierako proposamena berresten zuela, eta txosten bat bidali zion «2012/05/18ko Aldundiaren txostenarekin lotutako ohar» batzuekin.

2012ko abuztuaren 27an, GFAk ZAEari jakinarazi zion, hilabete bereko 17ko idatziaren bidez, hasierako erantzuna berresten zuela, eta zergapekoaren helbidea Valladoliden dagoela uste duela.

Azkenik, 2012ko irailaren 27an, ZAEAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean.

Data horiek gogorarazi ostean, GFAk adierazten du gatazka epez kanpoko delata, Kontzertuaren 43. artikuluko seigarren eta bederatzigarren ataletan xedatutakoaren eta Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako hau xedatzen du Kontzertu Ekonomikoaren 43. artikuluen bederatzigarren atalak:



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

«Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza-aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta bi hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Besteak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio. Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulua honetako seigarren paragrafoan azaldutako eran». Era berean, arau beraren seigarren atalak honako hau dio: «Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori Kontzertu Ekonomiko honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa».

Azkenik, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua 1. atalean ezarritakoaren arabera:

«Zerga-administrazioen artean sortzen diren gatazketan, hasierari dagokionez, honako prozedura honi jarraituko zaio: 1. Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributu-administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatzuz, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita.

Errekerimendu-idatzian, argi eta garbi zehaztuko dira gatazkaren gai diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

Baldin eta ezein administrazioak ez badu bere burua eskuduntzat jotzen, eskugabetasuneko aitorpena gertatu izana beharko da, administrazio batetik bestearen aldekoa, eta, aldi berean, haren erabakia, inhibitzeari buruzkoa.

Inhibizioko errekerimendua jasotzen denetik hilabeteko epean errekerimendu horri erantzuten ez dionean, ulertuko da tributu-administrazioa bere eskumenean isilbidez berresten dela. Era berean, beste administrazioaren eskugabetasuneko aitorpenari erantzuten ez dionean, ulertuko da tributu-administrazioak ez duela bere burua eskuduntzat jotzen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren paragrafoan aipatzen den bi hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango paragrafo honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskugabetasuneko aitorpena egitea, gatazka aurkeztu ahal izateko.

Artikulu beraren 2. atalean xedatzen denez:

«Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez (...)».

GFAk gogora ekartzen du, puntu horretan, 2012ko ekainaren 4an jakinarazi ziola ZAEARI helbidea aldatzeko proposamenari emandako ezezkoa, eta horrekin batera txosten sakon bat bidali zuela, bere iritzia esplizituki zehaztuz.

Alabaina, ZAEAK ez zuen planteatu gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean 2012ko irailaren 27ra arte, hau da, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikulua ezartzen duen hilabeteko epea agortu eta askoz beranduago. Hori dela eta, GFAk argudiatzen du gatazka ez da onartu behar, epez kanpo aurkeztu zelako.

Are gehiago, gaineratzen du segidan GFAk, hasierako proposamena berresteko ZAEAK 2012ko uztailaren 13an bidalitako bigarren jakinarazpena epez kanpoko zen dagoeneko, ZAEARA helbide-aldaketaren proposamenari uko egiteko jakinarazpena bidali zenetik (2012ko ekainaren 4a) hilabete baino gehiago igaro zelako. Gainera, dio GFAk, ZAEAK hasierako proposamena berresteko bidali zuen 2012ko abuztuaren 27ko idatziak orrialde bakarra du, eta ez du inolako datu, argumentu edo gai berririk aipatzen gatazkaren xedearen inguruan, eta proposatutako helbide-aldaketari emandako ezezkoa berresten du, besterik ez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Gatazka epez kanpoko dela argudiatzeko, GFAk 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren epaia erabiltzen du (256/2012 errekurtsua), haren zuzenbideko laugarren oinarriaren zati hau aipatuz:

«Esan den bezala, 45.9 artikulua eztabaidaezina da, helbidea aldatzeko tramitazioa hasitakoan bi hilabeteko epean amaitu behar da; adierazi da dagoeneko Bizkaiko Foru Aldundiak 2006ko urriaren 16an proposamenari ezezkoa eman zioenean bi hilabete igaro zirela, eta ondorioz 43.9 artikulua betez 43.6 artikuluan adierazitako prozedura hastea zen aukera bakarra, hilabeteko epean. Alabaina, “Helbide-aldaketari buruzko Lantaldearen Ondorioak” izeneko prozedura bati heltzea erabaki zen, ZAEAREN, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lantalde batek egindako dokumentua da hori, eta ez du inolako indarrik araudi bezala –ez ditu betetzen arau-izaerako xedapen bezala sailkatzeko gutxieneko baldintzak- eta barne-antolaketa bako bako ez ditu ondorioak. Horren bidez, inplikaturako administrazioek prozedura adiskidetsu bat ezartzen dute beren arteko harremanetarako, 43.9 artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei dagokienez. Gainera, horietan helbide-aldaketari erantzuteko bi hilabeteko epea ezartzen bada ere, aurreikusi egiten da “Ondorioak” atalean, epe horretan ez amaitzea, eta sei hilean behin egin beharreko komunikazioak ezartzen dira, bi hilabeteko epe hori gainditu duten espedientei buruzko informazioa trukatzeko; Ondorioetan 43.9 artikuluko xedapenean aipatzen ez diren tramiteak (eta, bi hileko epea gainditzen denez, teleologikoki kontrakoak direnak) gehitzen dira, eta, administrazioen arteko gatazkak konpontzeko barne-funtzionamendu horren aurka ezer esaterik ez badago ere, ez du birtualtasun juridikorik, eta ezin ditu administrazio-egintzei eta horien jakinarazpenei buruzko arauak aldatu, eta ezin dira epez kanpoko egintzak justifikatu ez konpondu aipaturako bi hilabete horiek igaro direlako».

Modu subsidiarioan, egintza epez kanpoko dela dioen alegazioa onartzen ez bada, GFAk funtsari buruzko alegazioak ere egiten ditu, 1. ERAKUNDEAREN helbidea eztabaidaturako epean Valladoliden zegoela frogatu nahian.

Alegazioak ZAEAK egindakoen antzerakoak dira, erakundearen ohiko administrazio-kudeaketari eta negozioen zuzendaritzari dagokienez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Lehen alegazio batean, GFAk 9 epigrafetan garatzen du bere argudiaketa. Horiek zerrendatuko ditugu oraingoz, eta geroago beharrezkoa bada xehetasun handiagoz aztertuko ditugu. Hauek dira epigrafeak:

- a) erakundearen egoitza soziala Valladoliden ezarri da.
- b) negozioen zuzendaritza eta administrazio-kudeaketa Valladoliden daude zentralizatuta.
- c) erakundearen aktiboak Valladoliden daude, bai eta lurralde erkideko beste probintzia batzuetan ere (ibilgetuak izan edo ez).
- d) administratzaile bakarren ordezkari den pertsona fisikoaren lanpostua Valladoliden dago.
- e) erakundeko ahaldun gehienen lan-zentroa ez dago Gipuzkoan.
- f) Valladoliden badago berariaz erakundeak erabiltzeko espazio fisiko bat, KREDITU-ERAKUNDEArekin 1. ERAKUNDEA eratu zen egunean bertan sinatutako kontratu baten bidez lortua.
- g) Gipuzkoan ez dago 1. ERAKUNDEArentzako espazio fisikorik ez eta esleitutako giza baliabiderik ere.
- h) kudeaketa komertziala eta kontabilitatearen kudeaketa azpikontratatuta daude, lehen kasua Valladolideko erakunde batzuei eta bigarreanean egoitza Gipuzkoan duen kanpoko enpresa bati.
- i) operazioak Valladoliden eta lurralde erkideko beste probintzia batzuetan egiten dira, eta bertan zentralizatzen da enpresaren jarduera ekonomikoa.

Bigarren alegazio batean GFAk ZAEAREN posizioaren aurka egiten du, pertsona juridikoen jurisprudentziaren doktrina baliatuz, nagusiki (hauek aipatzen dira, ordena honetan: 2013ko urtarrilaren 23ko, 2010eko otsailaren 4ko, 2013ko urriaren 17ko, 2009ko otsailaren 4ko, 2012ko martxoaren 26 eta 2015eko otsailaren 9ko Auzitegi Gorenaren epaiak).

Horregatik guztiagatik, GFAk eskatzen du, aurrena, gatazka ez onartzeko, epez kanpo aurkeztu zelako eta, modu subsidiarioan, adierazteko 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Valladoliden egon dela sozietatea eratu zen egunetik.

2016ko apirilaren 14an espedientearen berri eman zitzairen, alegazioak aurkez zitzaizten, hala GFARI nola 1. ERAKUNDEARI.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

11.- ZAEAk 2016ko maiatzaren 19an aurkeztu zituen alegazioak, adieraziz, beren datu-baseetako datuen arabera, 1. ERAKUNDEAK Valladoliden izan duela egoitza eratu zen egunetik 2014ko abenduaren 9an 036 eredia aurkeztuta egoitza Arrasatera aldatu zuen arte.

ZAEAk gatazka epez kanpokoa dela dioten GFaren alegazioen kontra egin du, argudio hauek erabiliz:

Helbide-aldaketaren proposamena jasotzen duen administrazioak bi hileko epea zuen erantzun bat emateko Kontzertu Ekonomikoaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako epearen arabera, apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez egindako erreformarekin epea lau hilera luzatu zen arte. Epea horren laburra izanik, gomendagarria zen prozedura bat bilatzea, Kontzertuak onartutako eskumenen kalterik gabe, prozedurak eta administrazioen arteko harremanak hobetzeko.

Helbide-aldaketei buruzko lantaldean 2006an adostutako akordioei esker, adostasun batera heltzeko aukera zabaldu nahi zen, helbide-aldaketaren txanda bat gehiago eginez eta aldi berean auzi-kopurua eta Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazkak murriztu nahi ziren.

Esparru horretan egin dira 1. ERAKUNDEAREN helbide-aldaketari buruzko Estatuaren eta GFaren arteko jarduketak, eta bi administrazioek akordio horri erreferentzia egin diote behin eta berriz.

Zentzu horretan, ZAEAk deitoratu egiten du GFak epeak ez betetzea alegatzea, hori 1. ERAKUNDEAREN helbide-aldaketaren prozedura guztiaren oinarri izan diren akordio batzuen aplikazioaren ondorioz gertatu baita eta, amaitzeko, ohar hau egiten du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

«kontuan izan behar da Auzitegi Gorenak, 33/2008 gatazkari buruz 2014ko maiatzaren 5ean eman zuen 256/2012 epaian, berretsi egin zuela 2011/09/22ko epaian (2429/2007 errekurtsua) eta 2012/06/07ko epaian (9/2011 errekurtsua) adierazitako doktrina. Horren arabera, 43.9 artikuluan ezarritako epea ez betetzeak ez du erabateko deuseztasuna eragiten. Ondore baliogabetzaile horiek gertatzeko, beharrezkoa da defentsa-gabezia ere egotea, eta prozedura honen kontrako kasu honetan, Foru Aldundiari uneoro jakinarazi zaizkio izapide guztiak horiek gertatu ahala eta Aldundiak ez du inoiz ustezko defentsa-gabeziaren argudiora jo».

Gainerako alegazioak GFak gaiaren funtsari buruz egindako alegazioei kontra egiteko dira, GFak erabilitako ordena berean. Xehetasun handiagoz aztertuko ditugu, egokia bada, ebazpen honen zuzenbideko oinarriari buruzko atalean.

12.- 2016ko maiatzaren 20an iritsi zen Arbitraje Batzordera ----- IFK zenbakia duen eta egoitza Arrasaten duen 2. ERAKUNDEAren administratzaile bakarrak aurkeztutako alegazio-idazkia. 1. ERAKUNDEAren ordezkari du erakunde horrek, hura xurgatu zuelako, 2015eko uztailaren 10eko eskritura publikoaren bidez. Idazki horretan ez zaio aipamenik egiten gatazka epez kanpokoa izateari. Alegazio guztiak gaiaren funtsari buruzkoak dira.

Zentzu horretan, nabarmendu egiten du kontraesankorra dela ZAEAk 2009 eta 2010eko BEZari zegozkion eskatutako kuotak itzuli ez izana eta, hala ere, dagozkion egiaztapenak egin eta gero, 2011 eta 2012ko ekitaldiei dagozkien BEZaren itzulketak egin izana (kopuru hauek itzuli zituen, zehazki: 2.151.663,33 € eta 1.194.279,01 €, hurrenez hurren). Kontraesan horrek norbere egintzen printzipioa urratzen du.

Bigarrenik, hainbat arrazoi ematen ditu bere helbide fiskala Valladoliden dagoela defendatzeko, GFaren arrazoiketaren ildo berean, eta amaitzeko honako eskari hau egiten dio Arbitraje Batzorde honi: «ebatz dezala ZAEAk aurkeztutako gatazka, egun 2. ERAKUNDEAk xurgatu duen 1.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

ERAKUNDEAren helbide fiskalari buruzko, gatazka ebatziz, horrela ZAEAK 2011ko otsailean hasitako ikuskapena amai dezan eta dagokion erakundeak 2009 eta 2010eko ekitaldiei dagokien BEZa itzul dezan, 5.832.875,10 euro eta 2.031.857,11 euroko zenbatekoekin, hurrenez hurren».

13.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritz izapidetu da prozedura.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honetan planteatzen den gaiaren funtsa 1. ERAKUNDEAren helbide fiskalaren kokalekua zehaztean datza, baina horren inguruko epaia eman aurretik planteamenduaren epea kanpoko izaerari buruzko ebazpena eman behar dugu (GFAk planteatu du gai hori).

2.- GFAk alderdi hori aipatu izan ez balu ere, Arbitraje Batzorde honek badu ofizioz gai hori aztertzeko eskumena, Auzitegi Gorenak adierazi duen moduan (2013ko ekainaren 28ko epaia, 754/2011 errekurtsioa eta 2013ko azaroaren 15eko epaia, 467/2013 errekurtsioa):

«Kontzertu Ekonomikoaren 12/2002 Legearen 67. artikulua eta Arbitraje Batzordearen 2007ko Erregelamenduaren 17. artikulua xedatzen dutenez, zuzenbidearen arabera ebatzi behar ditu espedienteko auzigai guztiak, gatazkaren alderdiek edo interesdunek horiek planteatu ala ez, eta gainera ofizioz ebatz daitezke beti ordena publikoaren araberrako onartezintasunari lotutako gai guztiak». Izatez, Auzitegi Gorenaren epai horietan Arbitraje Batzorde honek emandako antzeko bi ebazpenen deuseztasuna adierazten da, uste dutelako «epea kanpo aurkeztutako eta egintza irmo eta onetsi baten kontra zuzendutako gatazka bat ebazteagatik errekurritutako ebazpenaren deuseztasunari buruzko alegazioa errekurtsio honetan *ex novo* formulatu izana, eta ez alde aurretik Arbitraje Batzordearen aurrean, ez da arrazoi bat Batzorde horrek gaiari buruzko iritzia eman ez zezan. Berriztat jo daitekeen argumentua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

edo arrazoia da, baina ez du inolaz ere aldatzen administrazio-bideko ezesteko uzia».

3.- ZAEAk Auzitegi Gorenaren bi epai aipatzen ditu bere argudioen alde egiteko (2011ko irailaren 22koa, 2429/2007 errekurtsua; eta 2012ko ekainaren 7koa, 9/2011 errekurtsua). Horietan adierazten denez eskaera jaso duen administrazioak helbide-aldaketarekin ados dagoen edo ez adierazteko duen bi hileko epea ez da gatazka erabat deusez adierazteko arrazoia bere horretan; aitzitik, beharrezkoa da defentsa-gabezia ere egotea ondore baliogabetzaile horiek izateko. Nabarmendu behar da bi epai horiek dagoeneko aipatu den Arbitraje Batzordearen 13. artikuluko 1. atalari dagozkiola.

Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaian (256/2012 errekurtsua) nabarmentzen da «garrantzia duela zergadunaren helbide fiskala zehazteak bere zerga-egoera zein den jakiteko, batik bat Espainiako estatuaren zerga-sisteman, bertan hainbat zerga-araubide desberdin baitaude. Kasu honetan, gainera, inplikaturako administrazioen artean helbidea aldatzeko prozedura batez ari gara eta, ondorioz, adosten denak berebiziko garrantzia izango du zergadunaren helbide fiskala zehazteko, ordaintzen dituen tributu zehatzekiko duen harremana definituz eta aldi berean existitzen diren araubideetako zeinen mende egon behar duen ebatziz. Hori dela eta, gatazka administrazioen artean planteatu arren, ezin da alde batera utzi zer garrantzi duen bere egoera juridikoa legez ezarritako bide eta epeetan sailkatzeak», eta adierazten da:

«Esan den bezala, 45.9 artikulua eztabaidaezina da, helbidea aldatzeko tramitazioa hasitakoan bi hilabeteko epean amaitu behar da; adierazi da dagoeneko Bizkaiko Foru Aldundiak 2006ko urriaren 16an proposamenari ezezkoa eman zioenean bi hilabete igaro zirela, eta ondorioz 43.9 artikulua betez 43.6 artikuluan adierazitako prozedura hastea zen aukera bakarra, hilabeteko epean. Alabaina, "Helbide-aldaketari buruzko Lantaldearen Ondorioak" izeneko prozedura bati heltzea erabaki zen, ZAEAREN, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lantalde batek egindako dokumentua da hori, eta ez du inolako indarrik araudi bezala –ez ditu betetzen arau-izaerako



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

xedapen bezala sailkatzeko gutxieneko baldintzak- eta barne-antolaketa bako bako ez ditu ondorioak. Horren bidez, inplikaturako administrazioek prozedura adiskidetsu bat ezartzen dute beren arteko harremanetarako, 43.9 artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei dagokienez. Gainera, horietan helbide-aldaketari erantzuteko bi hilabeteko epea ezartzen bada ere, aurreikusi egiten da "Ondorioak" atalean, epe horretan ez amaitzea, eta sei hilean behin egin beharreko komunikazioak ezartzen dira, bi hilabeteko epe hori gainditu duten espedientei buruzko informazioa trukatzeko; Ondorioetan 43.9 artikuluko xedapenean aipatzen ez diren tramiteak (eta, bi hileko epea gainditzen denez, teleologikoki kontrakoak direnak) gehitzen dira, eta, administrazioen arteko gatazka konpontzeko barne-funtzionamendu horren aurka ezer esaterik ez badago ere, ez du birtualtasun juridikorik, eta ezin ditu administrazio-egintzei eta horien jakinarazpenei buruzko arauak aldatu, eta ezin dira epe kanpoko egintzak justifikatu ez konpondu aipaturako bi hilabete horiek igaro direlako. Aurkaratutako akordioan baieztatzen da prozedura 2008ko apirilaren 22an amaitu zela (espedientearen 928. folioa) eta gerora Estatuko Abokatu jaunak berretsi egin zuen hori, baina baieztapen horrek ez du sendotasunik, eta terminoak eta edukia administrazioek helbidea aldatzeko prozeduretan euren artean komunikatzeko dituzten barne-arauen arabera baino ezin daitezke ulertu. Horiek ez dira legezko ebazpenen arabekoak, lehen aipaturiko «Ondorioak» daude horien artean, eta ez dute lehendik egindako erabakiak berrikusi eta indargabetezko indarririk, esan den bezala proposamenari ezezkoa eman baitzitzaion, zuzendari nagusiaren oniritziarekin».

4.- Hala, gogora dezagun Arbitraje Batzordearen 13. artikulua zerga-administrazioen artean sor litezkeen gatazketan jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa dela.

Arau horrek honako hau xedatzen du 1. atalean:

«Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributu-administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatu, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez. Aipaturako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Errekerimendu-idatzian, argi eta garbi zehaztuko dira gatazkaren gai diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

Baldin eta ezein administrazioek ez badu bere burua eskuduntzat jotzen, eskugabetasuneko aitorpena gertatu izana beharko da, administrazio batetik bestearen aldekoa, eta, aldi berean, haren erabakia, inhibitzeari buruzkoa.

Inhibizioko errekerimendua jasotzen denetik hilabeteko epean errekerimendu horri erantzuten ez dionean, ulertuko da tributu-administrazioa bere eskumenean isilbidez berresten dela. Era berean, beste administrazioaren eskugabetasuneko aitorpenari erantzuten ez dionean, ulertuko da tributu-administrazioak ez duela bere burua eskuduntzat jotzen.

Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren paragrafoan aipatzen den bi hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango paragrafo honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskugabetasuneko aitorpena egitea, gatazka aurkeztu ahal izateko.

Arau horrek honako hau xedatzen du 2. atalean:

«Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez (...)»

Esan den bezala, GFAk gatazka epez kanpokoa dela defendatzen du Arbitraje Batzordearen 13. artikuluko 2. atalean xedatutakoa oinarri hartuta. Hain zuzen ere, GFAk esaten du 2012ko ekainaren 4an jakinarazi ziola ZAEARI, email bidez, ez zegoela ados helbidea aldatzeko proposamenarekin, bere iritzia jasotzen zuen txosten sakon batekin batera. Alabaina, ZAEAK ez zuen gatazka Arbitraje Batzordera bidali 2012ko irailaren 27ra arte. Hots, ordurako gainditua zen Arbitraje batzordearen 13.2 artikuluan xedatutako hilabeteko epea eta, horren ondorioz, -dio GFAk- ez da gatazka onartu behar, epez kanpo aurkeztu baita. Are gehiago, gaineratzen du ondoren GFAk, hasierako proposamena berresteko ZAEAK 2012ko uztailaren 13an bidalitako bigarren jakinarazpena epez kanpokoa zen dagoeneko, ZAEARA helbide-aldaketaren proposamenari uko egiteko jakinarazpena bidali zenetik (2012ko ekainaren 4a) hilabete baino

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

gehiago igaro zelako. Gainera, dio GFAk, ZAEAk hasierako proposamena berresteko bidali zuen idatziak, 2012ko abuztuaren 27koak, orrialde bakarra du, eta ez du inolako datu, argumentu edo gai berririk aipatzen gatazkaren xedearen inguruan, eta proposatutako helbide-aldaketari emandako ezezkoa berresten du, besterik ez.

Hortaz, Arbitraje Batzordearen 13. artikularen 2. atalean aurreikusitako epea ez betetzeari dagokionez, kontuan izan behar da lehen ere aipatu den Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaia eta, zehazkiago, horren zuzenbideko bosgarren oinarria. Bertan, berretsi egiten da 2013ko ekainaren 28ko epaian (754/2011 errekurtsua) eta 2013ko azaroaren 15ko epaian (467/2013 errekurtsua) adierazitakoa, hots:

«Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010eko apirilaren 22ko epaia aipatu zuen administrazio demandatzailearen eskariak atzera botatzeko tesia defendatzeko. Epaia horretako gatazkan, Arbitraje Batzordeak ez zezakeen auzi bat ebatzi, hura legez ezarritako epean aurkeztzen bazen, legez eratu gabe zegoelako. Nafarroako Ogasunak bigarren aldiz eman zion ezezkoa Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako helbide-aldaketari Zerga Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendariaren 2008ko martxoaren 27ko ofizioarekin bidez, eta Aldundi horri jakinarazi zion 2008ko apirilaren 2an, auzi honetan frogatu den moduan. Hala, jakinarazpen horrek Batzordearen aurrean desadostasuna edo gatazka aurkezteko epeari hasiera eman zion. Egiazki, epe horren lehen egunean (2008ko apirilaren 3an) Batzordea eratu gabe zegoen, baina ondorengo egunean egin zuen hori (2008ko apirilaren 4an). Hortaz, ez da egia Gipuzkoako Foru Aldundiak bere interesen defentsan Batzordearengana jotzeko zuen epea amaitu zenik, eta, are gehiago, horretarako epea ia legezko epearen berdina izan zen (egun bat baino ez zen galdu). 2008ko apirilaren 4tik maiatzaren 3ra, Gipuzkoako Foru Aldundiak aukera izan zuen gatazka aurkezteko, Arbitraje Batzordea martxan baitzen ordurako, eta ez zuen halakorik egin ekainaren 13ra arte, orain demandatzailea den administrazioaren ezezkoaren jakinarazpena jaso eta bi hilabete baino gehiago pasa zirenean. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiari baino ezin dakizkioke egotzi bere jokabide arduragabearen ondorioak.

Errekurtsio honetan administrazio errekeritzaileak (hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak) ez zuen Arbitraje Batzordearengana jo Nafarroako Ogasunaren ezezko erantzunaren jakinarazpena jaso (2008ko apirilaren 2an) eta hilabeteko epean; aitzitik, bi hilabete baino gehiago pasa arte ez zuen errekurtsua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

aurkeztu. Eta helbidea aldatzeko proposamenari emandako lehen ezezkoari erreparatzen badiogu, epez kanpoko baina larriagoa izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduna, administrazio demandatzailearen ezezko jarreraren berri izan baitzuen 2005eko uztailaren 4an (prozesu honetan egiaztatu den bezala), eta ez zuen gatazka edo desadostasunik planteatu 2008ko ekainaren 13 arte, hots, ia hiru urte igaro arte.

Hori guztia dela eta, honako hau ondorioztatzen da: 2004/2005ean egindako hasierako izapidetzeak onetsia eta irmoa den egintza bat eragin zuen, eta gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezteko preklusio-epea urratu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2008ko proposamen berriari dagokionez. Tesi hori jarraituko ez balitz, Nafarroako Ogasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari emandako bi ezezkoak gora behera, gatazka aurkezteko epea irekita legoke oraindik eta hala jarraituko luke etenik gabe. Hori absurdua eta logikarik gabea da guztiz eta, gainera, segurtasun juridikoaren printzipioaren kontrakoa da.

Arbitraje Batzordearen interpretazioa, hau da, bere eratze-data efektiboaren aurretik (2008ko apirilaren 4a) sustatutako edozein gatazka izapidetu behar duela, ez da aplikagarria kasu honetan.

Oraingo honetan gatazka ez da planteatu Arbitraje Batzordeak hura ezagutzeko aukera izango zukeen epea baina lehen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuen inolako jarduketarik egin gatazka planteatzeko Arbitraje Batzordea eratu baino lehen. Gatazka berri batez ari gara. Gipuzkoako Foru Aldundiaren idazkia 2008ko ekainaren 13an iritsi zen Arbitraje Batzordera, hau da, Batzordea 2008ko apirilaren 4an eratu eta benetan lanean hasi eta gero. Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikularen arabera, gatazka aurkezteko epea 2008ko maiatzaren 4an amaitu zen. Gatazka planteatzeko idazkia 2008ko ekainaren 13an sartu zenez Arbitraje Batzordearen erregistroan, epez kanpoko zen halaberrez.

2008ko apirilaren 4an hasi zen gatazka hori aurkezteko epea, kontuan izanik egun horretarako bi administrazioek (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Nafarroako Ogasuna) adierazia baitzuten sozietatearen helbide fiskala beste Autonomia Erkidegoan zegoela adierazitako epean.

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikulua hilabeteko epea xedatzen du gatazka aurkezteko eta, gatazkaren planteamenduaren idazkia 2008ko ekainaren 13an sartu zenez Arbitraje Batzordearen erregistroan, epez kanpoko dela adierazi behar dugu, gatazkaren funtsa aztertu behar izan gabe (...).

Eta hori esanik, Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaiak honako hau dio:

«*Mutatis mutandi*, adierazi behar da esku artean dugun kasu honetan, urriaren 18an hasi zela desadostasuna planteatzeko epea. Arbitraje Batzordea eratu gabe zegoenez, eratze-datara arte epe horrek ez zuen aurrera egin. 2008ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

apirilaren 4an gertatu zen hori eta gatazka 2008ko maiatzaren 22an aurkeztu zen, aurkaratutako akordioan jasotzen denez. Ondorioz, epez kanpoko da».

Jurisprudenzian jasotako doktrina horrek, dagokigun kasuari aplikatuta, ondorio berera garamatza nahitaez, hots, gatazka epez kanpoko dela adieraztera, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikuluan xedatutakoa ez betetzeagatik.

Prozeduraren denborazko sekuentziari erreparatzen badiogu eta kontuan hartzen baditugu Auzitegi Gorenaren aipatutako epaiaren arabera Arbitraje Batzordearen 13. artikuluko 2. atalak hilabeteko epea ez betetzeari egozten dizkion ondorioak, ondorioztatu beharko dugu gatazka epez kanpo aurkeztu zela. Eta hala da, ZAEAk 2012ko ekainaren 4an jaso zuen GFAREN erantzuna, ZAEAk proposatutako helbide fiskalaren aldaketarekin ados ez zeudela adieraziz. Kontuan izanik, beraz, gatazka 2012ko irailaren 27an aurkeztu zela Arbitraje Batzorde honetan, argi dago ordurako guztiz gainditua zegoela hilabeteko epe hori. Hori da gatazka iraungitzeko epea. Preklusio-epe bat da. Ez du zentzurik, ez bada «Helbide-aldaketari buruzko Lantaldearen Ondorioak» izeneko prozeduraren testuinguruan -eta jaso dugu Auzitegi Gorenak horren balioari buruz esandakoa (2014ko maiatzaren 5eko epaia, zuzenbideko laugarren oinarria)-, dagoeneko itxia dagoen prozedura bat luzatzen saiatzea, beste jakinarazpen bat bidalita (2012ko uztailaren 13an). Azken horretan ZAEAk 2011ko azaroaren 10ean egindako proposamena berretsi zuen, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Valladolidetik Gipuzkoara aldatzeari buruz. ZAEAk, GFARI bigarren jakinarazpen hori bidali beharrean, gatazka Arbitraje Batzorde honen aurrean aurkeztu behar zukeen, epeak betez. Ez du zentzurik, berriz diogu, aipatu berri dugun testuinguruan izan ezik, GFAK bere proposamenari emandako ezezkoa berretsi arte itxarotea ZAEAk gatazka aurkezteko. Aipatutako izapide horiek atzerapen bat ekarri dute, eta horren ondorioz gatazkaren planteamendua epez kanpo egin da, halaberrez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R5/2017	2017-02-06	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Eta gatazka epez kanpo aurkeztu zenez, ezin dugu gaiaren funtsari buruzko iritzia eman, epez kanpoko izaeraren adierazpenak galarazten digulako.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU**

1.- Gatazka hau epez kanpoko delat adieraztea, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikuluan xedatutako bete ez delako.

2.- Jardunak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta 1. ERAKUNDEAREN ondorengo den 2. ERAKUNDEARI.